

# LEXIKO BAZTERTZAILEAREN AZTERKETA ELHUYAR HIZTEGIAN

ENEKO SAGARZAZU

## ZER DA HIZKUNTZA BAZTERTZAILEA?

Edozein motatako diskriminazioa bultzatzen duen lexikoa da. Gai zabala denez, erabaki dugu **sexismoa eta androzentrismoa, LGTBIfobia, arrazakeria eta migrazioa eta kapazitismoa** lantzea. Beraz, Euskadi.eus eta <https://hiztegiak.elhuyar.eus/> atarietan ikusgai dagoen Elhuyar hiztegiako edukia aztertu eta lexiko baztertzailearen zantzuak detektatu ditugu; sarrerak dagokien oharrez hornitu, eta, beharrezkoa den kasuetan, adibideak aldatu edo ezabatu ditugu.

Lehenengo adibidea:

itsaski



1 iz. marisco

2004an, legez kanpoko 21 etorkin hil ziren Morecambe badian (Ingalaterra), gauzez itsaskiak biltzen ari zirela: en 2004, 21 inmigrantes murieron en la bahía de Morecambe (Inglaterra), mientras mariscaban de noche

## SEXISMOA ETA ANDROZENTRISMOA



·Erakutsi emakume eta gizonak, dibertsitate osoan, lanbide, lan mota eta lanpostu berak betetzen, haien aginte maila, boterea eta gizartean duten garrantzia parekatuz. Saihestu estereotipo sexistak, bereziki, baztertzaileak eta iraingarriak direnak. Hiztegiako adibideen edukiek emakumeen irudi orekatua eta estereotiporik gabear lortzen lagundu behar dute

## MIGRAZIOA ETA ARRAZAKERIA



·Migratzaileek ez dute talde homogeneorik osatzen. Beraz, estereotipoak eta topikoak saihestu beharra dago. Hala, esaterako, ezin da identifikatu jatorri, etnia edo erlijio jakin bat jarrera fundamentalistekin, delituarekin edo gizarte arazoekin.

## LGTBIFOBIA



LGTBI pertsonenganako gaitzespena, beldurra, aurreiritzia, mespretxua edo diskriminazioa da, homofobia moduan ezagunagoa da, baina LGTBI talde gehiago hartzen ditu barne. Familiei dagokienez, ez dago irudikapen-eredu bakar edo idealik. Badira bi ama edo bi aitako familiak, guraso bakarrekoak,

## KAPAZITISMOA



Desgaitasuna duten pertsonen aurkako diskriminazioa da. Pertsona nabarmendu nahi da, eta ez desgaitasuna, beraz, pertsona aurretik jarriko da. Desgaitasuna ez da gaixotasuna, ezta arazoa ere: desgaitasuna duten pertsonak ez dira ez arazoak, ez zamak.

## EMAITZAK ETA ONDORIOAK

Guztira 400 bat proposamen egin dira gai guztien artean. Elhuyar Hiztegiako adituen onespena jaso eta gero aldaketak datu basean egin dira. Harro esan dezakegu lan honen mugetatik joango dela lan honen eragina, hiztegian, eta, beraz, erabilera errealean eragina izango duelako.

Hala ere, pentsatzen dugu lan honek izaera ziklikoa duela, eta berriz egin beharko dela etorkizunean. Horregatik, oinarriak finkatu nahi izan ditugu.

Hizkuntzak hiztunen munduaren ulermenean eragiten duela pentsatu edo ez, ukaezina da hitzak mintzeko edo laguntzeko erabil daitezkeela.

Adibide berria:

itsaski



1 iz. marisco

itsaskia ez zait gustatzen: no me gusta el marisco